

UDAL-BATZAK EUSKALERRIAN

Atsegingarria da aspaldion gure errian entzuten dan eta udalbatzak alkartzera joten dauan jokabidea. Ortik itxaropen aundi batek egiten dauskula argi dirudi. Baiña goazen edestira.

Udal-batza izan da Euskalerrri osoan erri-erakundeen oinarri: batzarrak Bizkaia'n, Gernikan, batzarrak Gipuzkoa'n, ez beti erri baten, Arriaga'ko Kofradia Araba'n, Lakuan bere batzarrak egiten eta Estibaliz'ko Ama'k orretan zer-ikusia eukala, Naparroan beste era batera Erregearen inguruan, eta iparraldeko eskualdeetan be olako batzarrak izaten ziran.

Baiña udal-batzen indar ori, errietako sendietatik eto-ri-ren nortasun ori, beste gauza askoren antzera, galtzen joan da gure artean.

Urteak dira Eudel sortu zala eta ekintza batzuk bete be bai. Baiña ez gendun or be indar aundirik ikusten. Gauza ederra izan da eta oraindiño ba-da. Eta gaiñera lenago ez egoan on bat eukan: Ez ziran eskualde bateko Udal-Batzak. zabalagoak ziran.

Beste gauzatxu bat, emen aitzu bear ez doguana: Udalerrrian azpian auzoen erakundea egoan, kofradiak eukun euren bizikera bereizia. Jokabide oso eredugarria: Or alkartzen ziran, baseleiza baten inguruan, auzoak euren eskubideak zaintzeko. Nok egingo ete dau kofradi onei buruz bearrezkoa dan billaketa?

Eta beste arazo larri bat: Batzarretan, Gernika'n bai beintzat, korrexidorea zan jaun eta jabe: Jauna gendun erregeak ipiña, iñoz be euskalerrrikoa izaten ez zana, batzarrak erderaz egitera beartzen ebana, erri-ordezkarriak erderarik ez ekielako kanpoara bialtzen ebazana... Beti sartzen dira gure artera olakoak!

Edestian agertzen diran akats oneik kontuan artu bear ko dira Udal-Batzen alkarte sortua sendotzeko orduan. Baiña ba-dago ortik erriaren alde jokatzeko itxaropiderik?

Ume jaio-barria ikusten dogunean itaun au egin geinke beti: Zer izango eta da ume au? Antzera esan geinke sortu-barria dan udalbatzen erakundeari buruz: Zer urtengo ete da jokabide onetatik?

Beintzat, oraingoz, Euskalerrri osoa barruan daroan erakundea da: Iparraldekoak naiz egoaldekoak, naparrak naiz Euzkadi' koak, guztiak dagoz deituta erakunde orretara sartzeko. Oraindiño asko ez dira urreratu, baiña or zabalkunde aundia egin-bearra dago. Euskalerrri osoaren batasuna edo alkartasuna lortzeko urrats aundi bat izan leiteke ori.

Zelan alkartzen da erakunde barri au lengoakaz? Badauka zerikusirik jaurlaritzagaz? Edo Aldundiakaz? Gauza barria da eta etorkizunak esango dau norantza joan, baiña nik erakunde barri oneri zer-ikusi geiago aurkitzen dau tsat Errialdetako batzarrakaz eta Aldundiakaz, parlamentuagaz eta jaurlaritzagaz baiño. Ikusi egin bearko da zelan alkartu gauza bi orreik.

Dana dala, or agertzen da benetako erri-agintaritza edo

demokraziaren jokabidea, orren oiñarria sendietan eta errietan dago eta alderdi politikuetara baiño obeto sartzen da jokabide orretara euskaldunen izakerea. Eta jokabide biak jarraitu bear ba'dabe, ondo banatu bearko dira zeregiñak eta eskubideak.

Aldi zoragarri baten bizi gara, erriaren nortasuna bereskuratzeo aukera barriak dauzan aldi baten. Ikusiko al dabe ori orrelan gaur agintari doguzan frantziarrak eta españatarrak. Ez da izango gauza erreza, baiña erri lez aintzat artzen ba'gaitue eurak ikusiko dabe euskaldunak lagun onak garala, baiña etsai txarrak.

OLAZAR'tar Martin'ek

EUSKALDUNA

Baserrietako olak
tximinidun lantegi
biurtzera doaz;
aurrera doa, ernai,
Euskalerrri osoa
lanaren gogoaz.

Jakintza ta fedea
biziaren eusgarri
daroaz gogoan;
ortxe, izango poza
maitasunaren bidez
geroko geroan.

UDABARRIA

Zer dozu udabarria
ain eder izateko
gizonen begian;
zer adu maitagarrik
jantzi zaitu ain eder
mendi bizkarrian...?

Maitasuna darizu
bularra urretuta
eguzki gorriaz;
ta urretxindorra dabil
zuri agurka goizez
zidar abestiaz.

PAULIN